

txoritxoari mokoka

Xarlo Etchezaharreta

Mehdi Ben Barka

Pentsatua nuen zerbait kontatzea Juan Carlosi buruz Artek zabaldu duen dokumentalaz. Ez duk beraz aipatuko, telebixtak eskainitako hitzek dena esan dutelako! Hauta ez ukanez (nere xokoan ez ditugu harrapatzen ez ETB ez Espaniako kateak). FR3ri so egin eta horra nun Ben Barkaren desargertzea aipatzen zuten. Duela 35 urte, Mehdi Ben Barka, Marokoko gizon politikoa, bahitu zuten Paris erdian; geroztik ez du nehorik ikusi. Ikerketen arabera Frantziar poliziak egin zuen lan zikina OASeko kide batzuekin,

IKUSTEKO

Kubari eskainitako gaua

Ostegunean 20.45etan, Artek Cubari eskainiko dio gau hastapen osoa: Musikari dokumental bat, ondotik *Fraise et chocolat* (*Fresa y chocolate*) filma eta azkenik, berriro musika. Ezin utzia eta begiratu behar dena denen gainetik.

Tibeteko irudi ederrak

Arte kate berean, ostiralean Tibeti buruzko dokumentala emanen dute (22:10ean). Tsentso laku ingurutik tibetarrek egin behar duten bidea azalduko da *La route du sel au Tibet* erreportaian.

erdi merzenarioak eta erdi poliziak; ororen buru gaixtagin batzu, Oufkir generalaren esku makil, Hassan II-ren baimenarekin. Batzu Casablancarat joan ziren bizitzera; Oufkir eta Figonez berriz bere buruaz beste egin zuten. Geroztik inork ez ditu hobendunak xekatu, gorputza ez dute aurkitu. Frantziar holako ilunkeriari ohituak gaude: hara nola Algerian gerla izan dela berrikitan aitortu duten, tortura sistematikoa izan dela ixkutatzen dute oraindik. Errepublikak frantziarra puta galanta eta bihotz haundikoa: Afrikako errege eta diktadore erahiltzalea parrasta bat hazten eta babesten dituelako frogatzen. GALen denboran Frantziak egin joko zikina errexago uler ditake holakoak ikusita, ezta?

LABURAEAN

Ion Anduezak eta Xabier Zabaletak sari bat irabazi dute Galizan

Santiagoko Araganey Fundazioak antolatutako telebistarako gidioen lehenengo saria eraman dute Ion Anduezak eta Xabier Zabaletak. Gidoia hamahiru ataleko suspentseko telesail baterako da: *Historias de medianoche*. Proiektuak aterabiderik izango duen zain daude orain biak. Izan ere, telesaila martxan jartzen baldin bada sariari uko egin beharko diote, autore eskubideak mantentzeko. Anduezak esan duenez ETBk telesaila egingo balu, lehenengo aldia izango litzateke misteriozko telesail bat ekoizten duena.

GURE IRRATIA HAURREN ASTEA

Larunbatera bitartean irauango du Gure Irratiaren Haurren Asteak

Hirugarren urtez, Lapurdiko Gure Irratiak Haurren Astea antolatu du. Kari hortarat, haur ttipendako joko batzuk egiten ari dira egunero, 10:00etatik eguerdira bitartean. *Bertako portua* irratia saioaren barne egiten dute neska-mutikoei zuzendutako ekimena, eta abenduaren 30a arte irauango du. Diskak, bideoak, ipuinak, kamisetak eta beste zenbait gauza banatzen dituzte goizero. Horretarako, 106.6 frekuentzia entzun eta 0559593001 telefono zenbakira deitu behar da.

A3 'EL TRASPIÉS'

Bihar gauean umorezko saio bat estreinatuko dute A3 katean

El Traspies izeneko umorezko saioa estreinatuko dute bihar A3-n. Saioaren ardatza kamara ezkutatuak dira, eta astero aurkezleak aldatuko dituzte.

ETB1. Urtarrilaren 4an eta 5ean castingak egingo dituzte bost aktore berri hautatzeko



EGUNKARIA

'Goenkale'-ko gazteen etxetik kanpoko kontakizunak jorratuko dira *Hasiberriak* telesailan.

XABIER PUERTA

Pausokako zuzendari orokorra

«Duela laupabost urte telesail hau egiteko ideia zegoen, baina orain berreskuratu dute»

«Iñaki Eizmendi izango da ekoizle exekutiboa eta Jabier Garcia de Bikuña zuzendaria»

datzen, eta printzipioz hamaibost astetarako egitea pentsatuta dago. Gauzak bere bidetik joanez gero, martxoan estreinatuko dute *Hasiberriak*.

Lan-talde zabala

Telesailaren lan-taldean pertsona ezagunak egongo dira eta horien berri eman digu Puertak: «Iñaki Eizmendi izango da telesaila ekoizle exekutiboa eta zuzendaria Jabier Garcia de Bikuña. Gidoilari koordinatzaile lanetan Maite Luque eta Jokin Oregi egongo dira, eta ekoizketan burua Itziar Zeberio izango da. Elkarriketak idazteko talde zabal bat egongo da eta horien koordinatzaile lanetan Harkaitz Cano arituko da. Cano bera arduratuko da erabiliko den euskaraz. Elkarriketak idatzen ibiliko dira Xabier Zabaleta, Jon Muñoz, Kirmen Uribe, Zigor Ibarguengoitia, Juan Kruz Lakasta, Igor Zendoia, Jolanda Arrieta, Jasone Osoro eta Julen Gabiria».

Erronka handia euskararekin

Juan Kruz Lakasta iruñarra da elkarriketa idazle horietako bat eta hizkuntzak bere garrantzia izango duela esan dio EGUNKARIARI: «Gazte giroa islatu nahi izatea, eta aipatzen den gazteen arteko euskara bizi eta arina erronka zaila izango da. Nire ustez ez da esistitzen gazteriaren euskara hori eta sortu egin beharko da. Hor dago erronka handi xamar bat». Aurki ikusiko dugu erronkaren emaitza.

'Hasiberriak' martxoan

'Goenkale'-ko gazteak abiapuntu hartuta telesail bat egingo du Pausokak

Urtzi Urkizu | DONOSTIA

Telesail berri bat prestatzen ari da Euskal Telebista: *Hasiberriak*. Abiapuntua *Goenkale*-ko gazteetan du, eta protagonistetako bost ezagunak izango dira ETBko ikusentzuleentzat. Arraldeko Elene (Aintzane Gamiz), Julen (Manex Rekarte), Guti (Gorka Igartua), Teresa (Oihana Maritorea) eta Olga (Judit Mariezkurrena) pertsonaiekin batera hiru neska eta bi mutil egongo dira. Pertsonai berri horiek hautatzeko bi casting handi egingo dituzte: urtarrilaren 4an Bilboko Euskaldu-

nan eta 5ean Donostiako Kurasaalean. 16 eta 25 urte bitarteko gazteak hautatuko dituzte. Eta castingeko prozesuarekin *Hasiberriak* abian doku-soap delako saioa prestatuko dute.

Aspaldiko ideia

Pausoka ekoiztetzeko zuzendari Xabi Puertak EUSKALDUNON EGUNKARIARI adierazi dionez proiektu honen ideia ez da berria. «Duela laupabost urte ideia bat bazegoen. *Goenkale* gazte askok ikusten zuten, eta horiek eskatzen zuten gazteriaz gehiago hitz egitea. Proiektua ateratzekotan egon zen, baina azke-

nean ez zen sinatu eta artxibatu gelditu zen. Espainiako kateetan mota honetako telesailak egin dituzte urteotan, eta azkenean ideia berreskuratu da» kontatu digu Puertak. *Hasiberriak* telesaila ekoizteko xehetasun gehiago eman ditu Pausokako zuzendariak: «*Goenkale*-n badiara pertsonaia batzuk unibertsitatara joateko adinean direla. Hori aitzakia ona da telesaila egiteko. Gazte hauek Donostia-ra doaz ikastera eta bide batez etxetik kanpora bizitzera. Neska-mutiko hauek hasiberriak dira bizitzako alor askotan eta horretan datza argumentuaren ardatza».

Astelehenetik ostiralera emango dituzte atalak, eta ostiraleko atalak bereziak izango dira. Otsailan hasiko dira erro-